

## Untxearen etxea



Gure lagunak kalean daude. Ez dakite zer egin. Gorkak ideia bat du:

-Zergatik ez goaz basora?

-Zer egingo dugu basoan? -galdetzen du Izaskunek.

-Animaliak ikusi -dio Janirek.

Azkenean, basora joan dira. Han animalia asko bizi dira eta gure lagunak bilatzen ari dira.

-Ikusi al duzue animaliarik? -galdetzen du Gontzalek.

-Ez, guk ez -erantzuten du Gorkak.

-Etorri. Begira hau! -dio Janirek.

-Untxearenak dira -dio Izaskunek.

Eta umeak bila joan dira.

-Zuek segi hortik -dio Izaskunek

-Gu hemendik joango gara -esaten du Gontzalek.

Gorka eta Janire beren bidetik doaz eta bapatean zulo handi bat ikusi dute.

-Begira, hori da untxearen etxea -esaten du Janirek.

-Bal, hor bizl da. Goazen! -dio Gorkak. Hurbildu dira eta...

-Hau ez da untxea. Ama, ama!

Eta korrika joan dira biak. Bidean Janire bere lagunekin topatu da, baina Gorka ez dago. Gorka zuhaitz batera igo da. Behean animalia handi bat dago: basurde bat. Lagunak ez dira konturatu.

-Zer egiten duzu hor? -dio Janirek.

-Basurde bat! Basurde bat! -dio Gorkak.

Bapatean, krik, krak. Adarra apurtu da eta Gorka basurdearen gainera erori da.



# UNTXEAREN ETXEA

## Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Non daude gaur gure lagunak?

.....

2.- Zer du Gorkak?

.....

3.- Nora joan dira azkenean?

.....

4.- Non bizi dira animalia asko?

.....

5.- Zertan ari dira gure lagunak?

.....

6.- Nondik doaz Gorka eta Janire?

.....

7.- Zer ikusi dute bapatean?

.....

8.- Zuloa, noren etxea da?

.....

9.- Non topatu da Janire bere lagunekin?

.....

10.-Nor falta da?

.....

11.-Nora igo da Gorka?

.....

12.-Non dago basurdea?

.....

13.-Nolako da basurdea?

.....

14.-Noren gainera erori da Gorka?

.....

### Untxearen etxea. (Hiztegia)

Basurdea	.....	Ikusgarria	.....
Tximeleta	.....	Arina	.....
Urtxintxa	.....	Ondoan	.....
Igela	.....	Arrastaka	.....
Otsoa	.....	Igerian	.....
Habia	.....	Korrika	.....
Basoa	.....	Saltoka	.....
Putzua	.....	Hegaz	.....
Ibaia	.....	Basoa	.....
Sugea	.....	Non?	.....
Zuloa	.....	Norena?	.....
Erreka	.....	Nola?	.....
Irudia	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....